


Urtarrileko alean, Juan San Martin, Arartekoak argitaraturiko "Adin gutxidunen eskubideak" posterraz aipamen bat besterik ez genuen egin. Gaurko honetan Ararteko Erakundea eta umeen eskubideekiko loturaz gehiago sakonduko dugu.



Arartekoa: "Gaurko umeak dira biharko gizartearen arduradun"

ZER da arartekoa? Hiritarra, Administrazioaren aurrean, hau da, Jaurlaritza, Diputazioak eta Udalen gehiegikeria eta utzikieraren aurrean, babesteko sortu zen Erakundea.

Nork izendatzen du Arartekoa?

Eusko Legebiltzarrak izendatzen du eta ez Jaurlaritzak. Hiru bosteren gehiengoaren oniritziz hain zuzen. Guk zuzenki behintzat ez dugu zerikusirik Jaurlaritzarekin.

Eta umeak, gazteak, ere hor sartzen al dira? Bai noski, eta begiramen bereziz gainera. Iaz, Umearen Nazioarteko Urtea zela eta, kanpaina berezi bati ekin genion (poster banaketa, hitzaldiak ...) eta aurten ere, horretan jarraitzeko asmoa dugu. Nik beti esan izan bait dut "gaurko umeak direla biharko gizartearen arduradunak".

Eta Arartekoak nola babes ditzake adin gutxidunen eskubideak...

Ba, esate baterako, 1991. urteko gure txoste-



ARARTEKO

ARARTEKO
Eusko Legebiltzarra
Becerro de Bengoa z/g
01005 Gasteiz
Tel.945-135118
Fax: 945-135102

nean, "Adin gutxidunaren Legea" edo arau baketa bat burutu dezala gure Herrian eskatzen edo gomendatzen diogu Legebiltzarrari. Horrela Adin gutxiduna hobekiago babesturik aurkituko bait da.

Haurrek ez omen dituzte kexarik aurkezten... Zuzenki ez, baina bai zeharka. Oraindik kexatzeko beldur edo... dira eta

horren zergatia jakitea oso erraza da, baina hemen garrantzizkoena zera da, haur bakoitzak badituela bere eskubideak jakitea.

Jadanik aurkeztu diozu Legebiltzarreko Lehendakariari 1991. urteko txostena.

Hala da. Ari gara, bagoaz, emeki emeki. Horrelako Erakunde bat ez bait da egun bat eta bitan egin eta sendotzen, denbora behar du. Bide onetik goazena-aren ustea dut. Gero eta gehiago ari da gure Erakunde hau herrian zuzartzen. Eta txostenari lotuz, esan, txosten hori, urteko lanaren bilduma hori, urtero aurkeztu behar izaten diogula Legebiltzarrari. Kontuak eman behar dizkiogu eta hori txosten horren bidez egiten dut.

Eta amaitzeko betikoa, nola heldu Arartekoarengana?

Edozein argibide edo informazio eskatzeko, edo ta kexak, nahiz ahoz nahiz idatziz aurkezteko deitu edo idatzi goian aipatutako helbidera.

Qué es el ararteko

El Ararteko es una institución surgida para proteger al ciudadano de los excesos de la Administración. El nombramiento es efectuado por el Parlamento de Gasteiz. Hay que resaltar que al decir ciudadano no se marcan limitaciones de edad, incumbe también a los jóvenes y niños. Una prueba de esto es "La Ley del Menor de Edad" incluida en el informe del Ararteko del año 1991 que se recomendaba al Parlamento poner en vigor. Si bien es cierto que los niños no recurren al Ararteko para exponer sus quejas hay que subrayar que tienen ese derecho.

Para cualquier información o consulta dirigirse a **ARARTEKO**

Eusko Legebiltzarra
Becerro de Bengoa z/g
01005 Gasteiz

Qu'est-ce-que l'Ararteko?

L'Ararteko est une institution créée pour protéger le citoyen des excès de l'Administration. Son titulaire est nommé par le Parlement de Gasteiz. Il faut souligner que le citoyen est ici considéré sans limite d'âge, et donc les jeunes et les enfants sont aussi concernés. "La loi du Mineur", incluse dans le rapport de l'Ararteko en 1991 et dont la mise en vigueur a été recommandée au Parlement, en constitue une preuve. S'il est vrai que les enfants n'ont pas l'habitude de recourir à l'Ararteko, il faut toutefois souligner qu'ils en ont le droit.

Pour tout renseignement ou consultation il faut s'adresser à **ARARTEKO**
Eusko Legebiltzarra,
Becerro de Bengoa z/g
01005 Gasteiz.